



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES**

KIROLEKO DOPINAREN AURKAKO LEGE-PROIEKTUA

Kiroleko dopinaren aurkako lege-proiektua herritarren ekarpenak jasotzeko parte-hartzerako plataforma honetara dakargun lege-testua da. Testua honela sailkatuta dago: zioen azalpen bat, sei kapitulu eta azken xedapenak, xedapen gehigarriak eta abar. Bertan, Legea garatzen duten 52 artikulua jasotzen dira.

Zioen azalpenean gaur egun dagoen lege-esparrua azaltzen da, bai eta testu honekin betetzen diren hutsuneak eta lege honen bidez arautuko diren helburuak, jarduerak, subjektuak edo zehapenak ere.

I. kapituluak Xedapen Orokorrak jasotzen ditu. 11. artikulua ondorengoak deskribatzen dizkigu: dopinaren kontzeptua, nor dagoen kontzeptu horren barruan, kontrola kirol-lehiaketetan parte hartzen duten animalientzat zabalduz, kirolarien, euren inguruaren, herri-administrazioen, kirol-erakundeen eta ekitaldien antolatzaileen erantzukizunak. 8. artikulua kirolarien eskubideak finkatzen ditu, eta 9. artikulua, bere aldetik, ekitaldien babesa garatzen du. Bloke honetako azken bi artikuluetan Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioaren eskumenak eta Aholku Kontseiluaren eta erabilera terapeutikoko baimenen euskal batzordearen osaera (COVAUT) deskribatzen dira

II. kapituluak dopin-kontrolak arautzen ditu. Finkatzen duen lehenengoa da zein diren dopin-kontrolak egiteko betebeharra duten kirolariak eta kontrol horiek egiteko behar diren bermeak. Gainera, erabilera terapeutikoko baimenak jasotzen ditu, horiek nola egin, non erregistratu eta abar, eta kirol-bajak. Atal hau ixteko, ondorengoak zehazten dira: kontrolen ezaugarriak, nork egin ditzakeen, eta azken artikulua baten bidez nazioarteko erakundeek onartzen dituzten debekatutako sustantziak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko konpromisoa.

III. kapituluak dopinari buruzko diziplinaren eta administrazio-zehapenaren araubidea jasotzen du. Lehenengo artikuluetan diziplina-araubidea nori aplikatuko litzaiokeen, zehapenak eta kirolarien eta euren inguruaren erantzukizunak finkatu ondoren, arau-hausteen motak eta dagozkien zehapenak deskribatzen ditu. Lehen kapituluaren deskribatutakoarekin bat etorritik, hemen zehapenak besteak beste kirolari, klub eta kirol-taldeei, tekniko eta osasun-langileentzat zabaltzen dira. Hurrengo artikuluek zehapen eta isunetarako irizpideak deskribatzen dituzte, arau-hausteen ondorioak eta zehapenen epeak noiz amaitzen diren. Azkenik, zehapen-prozesu osoa deskribatzen da, nork egin dezakeen, nola hasi eta amaitu, bai eta bere ikuskapena





eta sustantzien konfiskatzea.

Kapitulu administratiboena amaituta, ahaleginak prebentzioan zentratzen dituen IV. kapitulura pasatzen gara. Bost artikulutan jasotzen ditu dopina prebenitzeko informazioko eta prestakuntzako programak, hainbat kolektiborentzako informazio-sistemak, bai eta dopina eragiteko gai diren produktuen kontrola. 45. artikulua Kirolariaren Osasun Txartela jasotzen du. Txartel horren helburua da kirolariak eta ahalik eta tratamendu onena izatea, gaitz edo gaixotasunen bat izanez gero, eta jasotzea kirolariari egin zaizkion kontrol eta azterketak.

V. kapituluak dopinari buruzko datuak arautzen ditu. Beren konfidentzialtasuna, beren uztea eta kirolean dopina eragiteko gai diren produktu eta metodoei buruzko datuak aitortzeko betebeharra.

Azken kapituluak, seigarrenak, nazioarteko kirol-lehiaketan kasuan kontrolak egiteko eskumena duten organoak jasotzen ditu, eta Autonomia Erkidegoko lehiaketetan organismo horiek ezarritako zehapenen ondorioak.

Legearen testua ixten duten gainerako xedapenek aipatzen dituzte lege-garapenak egiteko edo bai eta egun indarrean dauden legeen aldaketak egiteko egon litezkeen beharrak, Kirolaren Legea kasu.

